



PROPOSAMEN
DIDAKTIKOA
BATASUNAREN
PRIBILEGIOARI BURUZ

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLORAKO
OINARRIZKO INFORMAZIOA IRAKASLEENTZAT



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

KREDITUAK:

©Iruñeko Udala

TESTUAK:

Ana Mendióroz Lacambra

Teresa Benito Aguado

Carlos Ciriza Mendivil

ITZULPENA:

Maramara

Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzua

ARGITALPENAREN KOORDINAZIOA:

Iruñeko Udal Artxiboa

ARGAZKIAK:

Iruñeko Udal Artxiboa

DISEINUA:

La Llorona

INPRIMATZEA:

Gráficas Biak

LG NA 1518-2025



PROPOSAMEN
DIDAKTIKOA
BATASUNAREN
PRIBILEGIOARI BURUZ

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLORAKO
OINARRIZKO INFORMAZIOA IRAKASLEENTZAT







AURKIBIDEA

7
AURKEZPENA

12
ZEREGINEN BANAKETA

13
IKASKUNTZA-EGOEREN
EGITURA: laburpen
grafikoa

13 Bateratzen duten ikurrak

14 Nire informazioa
denboran zehar

15 Bakean eta adiskidetasunean
bizitzeko akordioak





AURKEZPENA

Proposamen didaktiko honek Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklorako prestatutako **hiru ikaskuntza-egoera** eskaintzen ditu. Egoera horietan, Batasunaren Pribilegioa hiru tokitan lantzen da: ikasgelan, Udal Artxiboan eta Iruñeko hirigune historikoan. Egoera bakoitzak dokumentuan jasotzen diren itunen funtsezko alderdi bat jorratzen du: hiriaren ikurrak, dokumentu-zaintza, akordioak lortzeko moduak.

Batasunaren Pribilegioa lantzea erabaki dugu. Zer egingo dugu orain?

1

PERTSONALIZATU

Gure ikasleentzako
aproposenak diren
ikaskuntza-egoera eta
zereginak aukeratuko
ditugu.

2

HARREMANETAN JARRI

Harremanetan jarriko gara
Udal Artxiboarekin, bisita/
tailerraren data eta ordua
adosteko.

3

PRESTATU

Lan-materialak prestatuko
ditugu eta ikasleei
emango
dizkiegu.

4

EKIN LANARI!

1. Pertsonalizatzea

Eskaintzen diren ikaskuntza-egoerek hiru zailtasun-maila dituzte, egin beharreko dokumentu-lanaren konplexutasunaren eta erabilitako kontzeptuen arabera. Egoera bakoitzaren **zailtasun-maila hurrengo** adierazlekin zehaztuko da:



Zeregin multzo gisa diseinatuta daude, ikasgelen aniztasunaren arabera. Horrek esan nahi du irakasleak ikasgelaren premietara eta ezaugarrietara egokituz pertsonalizatu ahal izango dituela eta egokitutako jardueren kopurua aukeratu ahal izango duela.

Ikaskuntza-egoera guztiek egitura bera dute: ikastetxeko ikasgelan ematen zaie hasiera, bisita-tailer bat egiten da Iruñeko Udal Artxibora, landa-irteera bat egiten da Iruñeko alde zaharrera eta zeregin gogoetatsu eta sortzaile bat egiten da ikasgelara itzultzean.

Ikaskuntza-egoeren egitura orokorra




1. IKASGELA: Ikaskuntza-egoerari ikasgelan emango zaio hasiera beti. Ikasgelan, ikasleek gaiari buruz aurretik dituzten ezagutzak gogora ekarriko dituzte, galderak egingo dituzte eta ikerketak planifikatuko dituzte.

2. BISITA-TAILERRA UDAL-ARTXIBOAN: Udal Artxiboan dokumentuak gordetzen diren ingurunea ezagutuko dute eta ikertzeko aukera izango dute lehen mailako iturriak erabiliz.

3. HIRIGUNE HISTORIKOA: Hirigune historikora egingo duten landa-irteeran, zentzua eman ahal izango diote informazioari eta egindako ikerketari, XXI. mendean gure hirian oraindik aurki daitezkeen Batasunaren Pribilegioaren aztarnak aztertuz.

4. IKASGELA: Azkenik, ikasgelara itzultzen direnean, sormenezko zereginak egingo dituzte, gatazkak konpontzen, akordioak lortzen eta elkarrikeria alderdi etikoaren eta bakerako hezkuntzaren ildotik lantzen laguntzeko.

Ikaskuntza-egoeretan, lehen fasea ikasgelan egingo da eta ezagutzeko eta ikertzeko premia sortzea izango du helburu; bigarren fasean, ikerketa egingo da bisita-tailerra egin bitartean. Iruñeko hirigune historikoa bisitatuko da ikerketari zentzua emateko, eta azken fasea, ikasgelan egingo dena, ikasitakoari buruzko hausnarketa eta autoebaluazioa egiteko izango da.





Irakaslearen liburu bat prestatu da egoera bakoitzerako, eta material hauek biltzen ditu:

Irakaslearen liburuak:	Hauek ditu:
Proposamenaren esparru didaktikoa	X
Azalpen historikoa	X
Programazio orokorra	X
Saio guztien programazio xehatua	X
Zereginen lan-orriak (ikasleentzat)	X
Ebaluazio-tresnak	X

Era berean, hiru koaderno prestatu dira ikasleentzat, zeinetan lan-fitxa guztiak dauden. Ez da beharrezkoa zeregin guztiak egitea, diseinua pertsonalizatu daiteke.

Lan-koadernoak:	Hauek ditu:
Zereginen lan-orriak	X

2. Udal Artxiboarekin harremanetan jartzea

- 1. Udal Artxiboarekin harremanetan jarriko gara** egin nahi dugun bisita-tailerra zer egunetan eta ordutan egingo dugun adosteko. Email: archivomunicipal@pamplona.es
- 2. Udal Artxiboari jakinaraziko diogu** hiru ikaskuntza-egoeretatik zein egin nahi dugun (baita hari dagokion bisita-tailerra ere) ikasleekin.

Hau adieraziko dugu:

Bisita-tailerra: bertaratuko direnen datuen fitxa	
Ikastetxea	
Harremanetarako helbide elektronikoa	
Telefono-zenbakia	
Arduraduna	
Ikasmaila	
Ikasle kopurua	
Aukeratutako ikaskuntza-egoera	

3. Prestatzea

Bisita-tailerra egingo den data eta ordua artxiboaren zuzendaritzarekin adostu ondoren.

1. Erabiliko ditugun **lan-fitxak aukeratuko ditugu** eta **ikasleei emango dizkiegu paper-formatuan.**
2. Garrantzitsua da Batasunaren Pribilegioaren testuinguru historikoan sakontzea; horretarako, lan-fitxekin batera emandako sarrera irakurriko dugu.

4. Ekin lanari!

1. Ikaskuntza-egoera ikasgelan hasiko dugu.
2. **Irakaslea ikasleekin joango da Udal Artxibora egingo duten bisitara.** Artxiboko langileek harrera egingo diete ikasleei eta Artxiboa eta jatorrizko dokumentazioa erakutsiko dizkiete; horretaz gain, testuinguruan kokatuko dute dokumentua, artxiboaren sorrera eta dokumentuak zaintzeak duen garrantzia.
3. Irakasleak egingo du ikerketa-lana aretoan, koadernoko materialak erabiliz.
4. Batasunaren Pribilegioaren jatorrizko pergaminoaren kontserbazio-egoera delikatuarenez, **Udaletxeko ezkaratzera bisitatxo bat egitea gomendatzen da**, bertan Pribilegioaren faksimilea ikus baitaiteke.



ZEREGINEN BANAKETA

ZEREGINAK	IRAKASLEA	PARTXIBOKO LANGILEAK
Udal Artxiboarekin harremanetan jartzea eta eguna eta ordua adostea	X	
Ikasleentzat egokia den ikaskuntza-egoera aukeratzea	x	
“Ikasleen liburua” izeneko fitxak ematea ikastaldeari	X	
Batasunaren Pribilegioaren berri ematea eta hark duen garrantzia aipatzea ikasgelan	X	
Udal Artxiboaren berri ematea eta hark duen garrantzia aipatzea ikasgelan	X	
Ikasleekin batera joatea udaletxeko ezkaratzera egingo duten bisitara	X	
Ikasleekin batera joatea Udal Artxibora egingo duten bisita-tailerrera	X	
Harrera egitea		X
Artxibo bat zer den azaltzea.		X
Artxibotik aukeratutako atal batzuk erakustea: 3 giltzako kutxa, neurrien taulak, kontsulta-gela		X
Batasunaren Pribilegioaren kopiak erakustea hainbat bertsiotan		X
Ikerketa-zeregina aurkeztea	X	X
Ikerketa-zeregina egitea Artxiboan	X	
Alde Zaharreko jarduera egiten laguntzea eta zuzentzea	X	
Ikasgelara itzuli ondorengo zeregina egitea	X	

IKASKUNTZA-EGOEREN EGITURA: LABURPEN GRAFIKOA

1. IKASKUNTZA-EGOERA Bateratzen duten ikurrak



TXIKIA

1

IKASGELAN

Aurkitu lehoia



- Aldez aurreko ezagutzak aktibatzea
- Iruñeko lehoia ezagutuko dugu
- Hipotesiak formulatzea. Zergatik lehoi bat?
- Ikerketa-lana planifikatzea. Lehoiaren bila. Non dago?

2

ARTXIBORAKO BIDEAN



Udaletxearen ezkaratza bisitatuko dugu, Batasunaren Pribilegioaren dokumentuaren faksimilea ikusteko.

3

UDAL ARTXIBOAN



Zergatik lehoi bat?

- Udal Artxiboaren aurkezpena: Zer da artxibo bat?
- Hiru giltzako kutxa
- Batasunaren Pribilegioa: agiria hiru formatutan aurkeztea
- Ikerketa-lana: lehoi iragailearen diseinua eta hori aukeratzeko arrazoiak

5

IKASGELAN

Gure ikurrak sortzen

Adostasunak lortzen ditugu



4

HIRIAN

Lehoi bat baino askoz gehiago da



- Iruñearen ikurrak udaletxean
- Lan-koadernoan erabiliko dugu

2. IKASKUNTZA-EGOERA

Nire informazioa denboran zehar



ERTAINA

1

1 IKASGELAN 1. SAIOA

Nork dauka nire informazioa?

- Aldez aurreko ezagutzak aktibatzea
- Ikerketaren galderak sortzea
- Udal Artxiboko Fototekaren aurkezpena
- Fototekarekin lan egingo dugu



USTE NUEN...

2

2 IKASGELAN 2. SAIOA

Nork dauka nire informazioa?

- Bisita zentroaren idazkaritzara
- Dokumentu-formatuen bilakaera
- Udal Artxiboaren aurkezpena



BANA GRAIN USTE DUT...

3

ARTXIBORAKO BIDEAN

Udaletxearen ezkaratza bisitatuko dugu, Batasunaren Pribilegioaren dokumentuaren faksimilea ikusteko.



6

IKASGELAN

Kanpaia: elkarrekin egoteko lekua eta denbora

XV. mendean geroztik aldatu denaren eta aldatu ez denaren analisia



5

HIRIAN

XV. mendean orientatzen

- Iruñeko burguen mapan irudikatuko dugu
- Eraikin nagusiak aurkituko ditugu
- Planoa egungo Iruñearekin konparatuko dugu

4

UDAL ARTXIBOAN



Letrak denboran zehar

- Ikasiko dugu: Zer da artxibo bat?
- Bisitatuko dugu: Hiru giltzako kutxa
- Batasunaren Pribilegioa: hiru dokumentu-formatutan aurkeztuko dugu
- Ikerketa-lana: Non eraikiko da udaletxea?
- Jolas paleografikoa

3. IKASKUNTZA-EGOERA

Bakean eta adiskidetasunean bizitzeko akordioak



HANDIA

1

IKASGELAN



Hau neurri-nahaspila!

- Adostea zer neurketa-unitate aukeratu ikasgela neurtzeko
- Batasunaren Pribilegioaren aurkezpena
- Udal-agintariak iruzurrik ez gertatzeko egiten zuten kontrolaren garrantzia aurkeztea
- Neurrien taula aurkeztea

2

ARTXIBORAKO BIDEAN



Geldialdi bat egingo dugu udaletxearen ezkaratzean, Batasunaren Pribilegioaren dokumentuaren faksimilea ikusteko.

3

UDAL ARTXIBOAN



Nola lortu akordioak

- Udal Artxiboko neurrien taula ezagutuko dugu
- Ikasiko dugu: Zer da artxibo bat?
- Bisitatuko dugu: Hiru giltzako kutxa
- Batasunaren Pribilegioa: hiru dokumentu-formatutan aurkeztuko dugu
- Ikerketa-lana: dokumentua, pertsonak, hiri fisikoa, hiriaren gobernua ikertuko dugu

5

IKASGELAN



Gure gatazkak konpontzen

- Batasunaren Pribilegioaren testuinguruaren analisia
- "Gatazka", "akordio", "elkarriketa" eta "konponbidea" kontzeptuak landuko ditugu
- Gatazkak konpontzeko protokolo bat egingo dugu, alderdi guztiak aintzatu hartuko dituen

4

HIRIAN



Gremioek hirian utzitako arrastoa

- Lan-koadernoak. Gremioak eta artisau- eta merkataritza-jarduera
- Kaleen izenak bilatuko ditugu



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala